Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 380

Irailak 1, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4-5 Etorbidearen zubia
6 Irungo dendarien ekintzak
7 Irungo Errepublikarrak elkartea
8 Kirolak: Julen Aginagalde
9 Kirolak: Santiagotarrak
10 Haurtxokoak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Folder
14 iGazte
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

caser residencial

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920. urteko aldizkaririk topatu ezean, 1918. urteko aldizkariak aukera aproposa izan daitezke duela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak errepasatzeko. Horrela, 1918ko irailaren 8an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariaren lehen artikuluan idazle anonimo batek eta "Do Mayor"-ek "R.Y" ezizenez sinatzen duen kolaboratzaileak aurreko zenbakian argitaratutako iritzi-artikuluari erantzuten diote. Izan ere, Alardeak musika lehiaketekin ordezkatzeko proposamenaren zentzugabetasuna erakutsi eta Alardeek eskualdeko gizarteari egiten dioten ekarpena goresten dute haien erantzun gutunetan. Mañuel kolaboratzaile ohikoak "Cosas que se pasan en Irun" zozketa batekin lotutako istorio dibertigarria kontatzen du. Antoniusek, berriz, Irunen Ateneo bat eraikitzeko proiektuaren xehetasunak eta oztopoak azaltzen ditu hurrengo idatzian. Lehen orrialdearen amaieran Txori Txikik "¡Nun yago!" olerkia publikatzen du.

Bigarren orrialdearen hasieran, "R.Y"-K idatzi zabal baten bitartez musika lehiaketen garrantzia defendatzen du. Kirol kronikan Real Union taldeak Amuten jokatutako azken partidua da atal honetako gai nagusia, Donostian Sartakok antolatutako atletismo lehiaketa eta Hondarribian jokatutako teniseko Kasino Kopa ere aipatzen direlarik. Ostean, "El Porvenir" tokiko aldizkariaren itxieraren berri ematen da. Satarkak "Neskatil samurra" izeneko olerkia publikatzen du euskaraz. Hortaz gain, Hondarribian Ama Birjinaren omenez antolatutako ekitaldiak aipatzen dira. Jarraian, Bellas Artes antzokian irailaren 12an ospatuko den musika jaialdiaren programa irakur daiteke.

Casto Canterok Bueno Airesen ekainaren 30ean San Martzial eguna ospatzeko irundarrek antolatutako jaialdia laburbiltzen duen kontakizuna argitaratzen du aldizkariaren zuzendariari zuzendutako gutun baten bitartez. "Hace años ...", "Ecos de sociedad", "Noticias" eta "De la Cuenca" atalean Elizondoko albisteak aipatu ostean, publizitate orrialdearekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren 158. zenbakia.

ARGAZKIAK:
G29163: Amuteko zelaia XX. mendearen hasieran jokatutako partidu batean.
G26184: Castro Cantero San Martzial eguna ospatzen Buenos Airesen.
G53102: Bilboko musika lehiaketan parte hartu zuen "Paz y Labor" musika taldea Aquilino jauregiaren aurrean (1905).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Alde Zaharra- San Juan auzo elkarteak Txapelaundi sariarekin saritu ditu Ama Xantalen egoitzako langileak

Alde Zaharra-San Juan auzo elkartea Xantalengo jaiak ospatu ohi ditu abuztuko hilabetearen amaieran. Diana, zendutako auzokideen omenezko meza, hamaiketakoa, danborrada eta beste zenbait ekintzek alaitzen dituzte urteko egun berezi horietan zehar auzoko kaleak. Aurten, ordea, osasun krisialdiaren ondorioz, jaietako egitarau guztia bertan behera gelditu da.

Auzoko jaietan antolatzen diren ekintza gehienak aurrera eramatea ezinezkoa izan bada ere, Alde Zaharra-San Juan auzo elkarteko kideek ez dute aurtengo Txapelaundi saria banatzeko aukera galdu nahi izan. Hortaz, urte berezia izan denez, elkarteko zuzendaritza batzordeak auzokide bakarra saritu ordez, kolektibo oso bat saritzeko aukera aprobetxatzea erabaki du, hau da, Ama Xantalen Egoitzako langileen lana saritzeko.

"Txapelaundi Saria" 2014ean sortu zen, Irungo Alde Zaharra auzo hobetzeko lan egiten duten auzoko pertsonak aintzat hartzeko. Auzo elkartearen zuzendaritza batzordetik adierazi denez, Txapelaundi sariaren bitartez azken hilabeteetan zehar egoiliarrak zaintzeko egindako lan gogorra goraipatu nahi da errekonozimendu honen bitartez. Izan ere, Txapelaundi saria urtero auzokide ospetsuak, auzokoak maite dituztenak eta auzoarekin zerikusia duten pertsonei aipamen berezia egiteko modua da.

Sari-banaketa

Abuztuaren 22ko eguerdiko 12:00etan antolatu zen Txapelaundi Sariaren banaketa Ama Xantalen egoitzaren lorategian. Nati del Hoyo Ama Xantalen egoitzako zuzendariak egoitzako ordezkari gisa Koldo Susperregui Alde Zaharra-San Juan elkarteko presidentearen eskuetatik jaso zuen saria, segurtasun neurriengatik 10 pertsona baino gutxiagok parte hartu zuten ekitaldi itxi batean. Nati del Hoyok sariak jasotzerakoan azpimarratu duenez, "Ama Xantalen egoitzatik, jaso berri dugun sariaz gainera, azken hilabete gogor hauetan zehar auzo elkartearen partetik jaso dugun laguntza eta babesarengatik eskerrak eman nahi dizkizuegu".

2020. urtean Xantalen jaietan ohiko bihurtu diren ekintza gehienak antolatzea ezinezkoa izan den arren, auzo elkarteak sare sozialen bitartez auzoarentzako bereziak diren egun hauetan zehar jaiekin lotutako edukiak partekatzeko ahalegin berezia egin dute. Adibidez, Txapelaundi Sariaren banaketa ekitaldia zuzenean emititu zuten auzo elkartearen sare sozialen bitartez. Hortaz gain, Xantalengo jaiekin lotutako aitzinako albisteak edo aurreko urteetako jaietako bideoak zabaldu dituzte, datorren urtean jaiak ohiko moduan ospatu ahal izateko esperantzarekin.

Datorren ikasturterako Irungo Udalak Hezkuntza sailaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren instalakuntza publikoak

José Antonio Santano Irungo alkateak adierazi duenez, "Irungo Udalak beharrezkoak izan daitezkeen instalakuntza publikoak prestatuko ditu bertan heziketa eta kirol jarduerak egin ahal izateko". Dena dela, alkateak salatu duenez, inor ez da udalekin harremanetan jarri aukera hau edo beste batzuk aztertzeko eta iristen zaien informazio guztia hedabideen bitartez jasotzen ari dira.

Abuztuko hilabetearen erdialdean jakinarazi zenez Eusko Jaurlaritza udalek ikasgela gisa egokitu zitzaketen instalakuntzak erabiltzeko aukera aztertzen ari zen, ikastetxeetan ikasgeletan ikasle ratioa murriztu eta pertsonen arteko distantziak errespetatu ahalko direla ziurtatzeko. Eudelek abuztuko hilabetearen amaieran jakinarazi zuenez, udalei eskaera bat bidaliko zaie ikasgela gisa egokitu ditzaketen espazioak zerrendatu ditzaten eta ikasturtearen garapen egokia berma dezaten.

Irungo alkateak zeregin honetan laguntzeko prestutasun osoa erakusteaz gainera azpimarratu du, "lehenbailehen jarraitu beharreko jardunbideak ezagutu nahi ditugu, ezjakintasun egoera honen aurrean udalak eta hiriko familiek nola antolatu ahalko garen jakiteko".

Irunen birusaren zabalpena ekiditeko helburuarekin pertsonen arteko segurtasun distantzia errespetatzeko neurriak, espazio publiko eta pribatuetako edukiera neurri bereziak eta musukoen erabileraren kontrola mantentzen dira.

José Antonio Santanok hiritar gehienak neurri berri hauen aurrean arduraz jokatzen ari direla eskertu nahi izan du, "murriztapenek gure artean erlazionatzeko modua eta ohiturak aldatzera behartzen gaituzten arren, Covid-19aren kontra babesteko ezinbestekoak dira" alkateak azpimarratu duenez.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Aro berria Irun eta Hendaia lotzer

G38358

G11297

G57405

G38358

G30097

G55577

G57359

Etorbidearen zubiak aro berria estreinatu berri du. Azken hiru urteetan zehar hiriko zubi historiko hau itxita egon da egitura berritzeko konponketa lanak direla eta. Astebete lehenago Udaletik zubiaren irekierako gutxi falta zela iragarri ostean, abuztuaren 28an desagertu ziren zubia inguratzen zuten hesiak, Etorbidearen zubiaren aro berria inauguratzeko.

Etorbidearen zubia 2017. urteko apirilean itxi zen, zubiaren estruktura ikertu zuen informe batean zubirako sarbidea debekatu ostean. Urte hauetan zehar zubian egindako lanen bitartez zubiaren egitura metalikoa osatzen duten elementuak zaharberritu dira, kalte garrantzitsuak zeuzkaten piezak ordezkatuz.

Behin berrikuntza lanak amaituta, Etorbidearen zubia oinezko zein txirrindularien pasabidea da berriro ere. Lanak amaitu aurreko egunetan José Antonio Santano alkatea zubira hurbildu zen lanen bilakaera gertutik jarraitzeko. Irungo alkateak adierazi zuenez, "Irungo udalarentzat oso garrantzitsua da Etorbidearen zubia bezala hiriko historiaren parte izan diren espazioak kontserbatzea". Irungo alkateak azaldu duenez, zubia berritzeko zerbait egitea beharrezkoa zela antzeman ostean abiatu zen proiektu hau. "Berrikuntza lanez gainera, zubiaren itxura originala berreskuratu nahi izan da", gaineratu du José Antonio Santano alkateak.

Kotte Ecenarro Hendaiako alkatearen hitzetan, "Irungo udalari eskerrak eman nahi dizkiot bi hirientzat oso garrantzitsua den zubi hau berritzeagatik". Irungo alkateak nabarmendu duenez, Irun eta Hendaiako Udalen kolaborazioa ezinbestekoa izan da zubiaren berreraikuntza lanak aurrera eraman ahal izateko. Azken urteetan zehar egindako lanek emaitza bikaina izan dute azkenean Hendaiako alkateak adierazi duenez, "bi aldeetako biztanleak zubi berria estreinatzeko irriketan daude".

Berrikuntza lanak

Konponketa lanetan, batez ere, zubiaren zutabe eta estriboen zimendua berritzeko lan egin da, taula, baranda eta zubiaren gainazalaren urabinaziorako lanak egiteaz gainera. Zehazki, lodiera originalarekin alderatuta %20-tik gorako lodiera orokor edo lokala galdu duten piezak eta korrosio garrantzitsua zuten piezak ordezkatu dira. Hortaz gain, zutabeen zimentazio lanak egin dira, hormigoizko oholtza zaharberritu eta inpermeabilizatzeko lanekin batera. Lanen azken fasean, gainazala pabimentatu eta zubiaren ertzetan baranda originalaren erreplika kokatu da.

Zubiaren berrikuntzarako funtsezkoa izan zen faseetako bat zubiaren inguruetatik ikusi ahal izan zen zenbait hilabeteetan zehar. Hilabete horietan zehar zubiaren taula gainean kokatutako habe metaliko bat sortu zen, zubia zintzilik gelditzen den estribo eta pilan eutsi zena. Egitura honen helburua konponketa lanak egiten ziren bitartean zubia eustea izan zen. Berrikuntza lanek guztira 2.053.015 euroko aurrekontua izan dute eta Acciona Construcción S.A enpresak burutu ditu.

Baranda berezia

Etorbidearen zubiaren bazterrean kokatuta zegoen barandak kalte garrantzitsuak zituela ikusita, barandaren erreplika bat egin eta originala ordezkatzea erabaki zen. Dena dela, baranda originalaren zenbait zati kontserbatu dira, zubiko puntu ezberdinetan kokatzeko. Fundinoxcortes enpresak zubiaren bereizgarrietako bat den baranda berritzeko enkargua jaso zuen eta 224 baranda metro sortu ditu, kasu honetan, burni originala baino iraunkorragoak diren teknika eta materialak erabiliz. Galiziako enpresa honek lan aipagarriak egin ditu estatu mailan, adibidez, Espainiako bankuaren ateak edo Madrilgo Retiro parkeko hesiak berrituz.

"Berrikuntza lanez gainera, zubiaren itxura originala berreskuratu nahi izan da"
José Antonio Santano, Irungo alkatea

"Bi aldeetako biztanleak zubi berria estreinatzeko irriketan daude"
Kotte Ecenarro, Hendaiako alkatea

n dituen Etorbidearen zubiarentzat

Mende bateko istorioa

1902. urtean Cipriano Larrañaga, orduan Irungo alkate zenak, Santiago inguruan eta Hendaiako geltokitik gertu zubi bat eraikitzeko asmoa zuela jakinarazi zion Gipuzkoako Aldundiari. Izan ere, garai hartan, egungo zubia kokatzen den eremuan txalupen zerbitzua eta Aduanaren eraikina ziren inguruan kokatutako zerbitzu bakarrak. Etorbidearen zubiaren eraikuntzarako lehen proiektua 1910. urtean idatzi zen eta 1912. urteaz geroztik sendotu zen proiektua.

Anaka Kofradiaren webgunean azaltzen denez, León Iruretagoyena Irungo alkate zen Etorbidearen zubia 1915eko azaroaren 5ean inauguratu zenean. Eraikuntza lanak Salvador de Azúa eraikitzaileak zuzendu zituen. Zubia garai hartan Frantziako etorbide gisa ezagutzen zen etorbidearen amaiera kokatzen zenez, Etorbidearen izena ipini zitzaion. Hasieran zubiaren erabilera oinezkoentzako erreserbatuta zegoen, beharrezkoa erresistentzia probak egin ziren arte. Igarobidea inauguratu eta lehen urtean zehar 187.000 pertsonek Etorbidearen zubia oinez gurutzatu zutela zenbatu zen.

Obrak 335.108 pezetetako kostua izan zuen, beraz, zubiaren eraikuntza kostuak amortizatzeko helburuarekin pertsona bakoitzak 5 zentimoko bide-saria ordaindu behar zuen zubia gurutzatu ahal izateko, ibilgailu eta zaldunek bestelako prezioa ordaintzen zuten bitartean. Zubiko argiteria, berriz, 1917. urtean ipini zen.

1966. urtean Santiago zubia eraiki zen René Petit Real Unioneko jokalari izan zen ingeniariaren eraikuntza planak jarraituz. Santiago zubia inauguratu eta trafikoa bertara desbideratu zenetik, Etorbidearen zubia oinezko eta txirrindularientzako igarobide batean bihurtu zen.

Pasabide historikoa

Etorbide zubi berriaren aurkezpenean José Antonio Santano alkateak adierazi zuenez, "zubiaren berreraikuntzarekin Bidasoaren memoria historikoa mantentzeko pausua eman da". Izan ere, zubia Irungo hiriko gertakari historikoekin lotura estua izan du. Esaterako, 1936ko irailaren hasieran Irungo hiria okupatua izan zenean milaka irundarrek Etorbidearen zubia zeharkatu zuten hiria suntsitu zuten gerra eta sutetik ihes egiteko. Zubia Frantzia eta Espainiako estatuen arteko igarobidea errazteko helburuarekin eraikia izan bazen ere, Bigarren Mundu Gerraren hasierarekin muga bi aldeetan itxi zen.1940. urtean Companys presidente Katalana Etorbidearen Zubian atxilotua izan zen eta, urte berean, judutar talde batek zubia gurutzatu eta III. Reichetik babestea lortu zuten. Hain zuzen ere, 1940ko ekainaren 29an Hirugarren Reichak Frantziako muga okupatu zuen.

1955. urtean Espainiaren kontrako nazioarteko boikota amaitu zen. Ondorioz, Espainia Nazio Batuen Erakundean (NBE) onartua izan zen eta kanpo blokeoa amaitu zen. Gertaera horien ostean, Etorbidearen zubiko trafikoa handituz joan zen, bertatik joan-etorriak egiten zituzten merkatari zein turisten kopuruak gora egin zuen bitartean. Hendaiako alkateak zubi berriaren inaugurazioan aipatu zuenez "zubia historikoki sufrimenduarekin loturik egon den arren, ez da ahaztu behar, era berean, esperantza eta askatasuna ere ekarrai zituela".

80 urte Companysen atxiloketatik

Alemanek Frantzia okupatu ostean, Pariseko enbaxada frankistak zuzeneko harremana ezarri zuten Naziekin. Honela, Errepublikako gobernu eta politikarien egoitzak konfiskatu eta bertan topaturiko informazioa baliatu zuten, erbesteratuak errepresaliatzeko. Pedro Urraca polizia agentea gakoa izan zen, erbesteratuak topatu eta espainiar Estatura deportatzeko. Lluís Companysen kasuan, 1940ko abuztuaren 13an atxilotu zuten Ar Baolen Gestapoko sei agente eta Pedro Urracak.

Abuztuaren 25ean, Companys Madrilera estraditatzeko agindua jaso zuen Urracak. Atzerri aferetako zerbitzu frankistek "ezkutuko" ohar batean bidali zuten agindua. Bertan, "Companys goizaldean irtengo da, autoz, eta ofizial aleman bat eta Urraca Jaunarekin joango da, Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiko funtzionarioa eta enbaxadako erantsia", zehazten da. Agindua Ramón Serrano Suñerrek idatzi zuen, Francoren atzerri aferetako ministroa.

Frantzia okupatuko agintari nazien onespenarekin burutu zen estradizioa. Autoa abuztuaren 29an heldu zen Irungo Etorbdiearen zubira. Urracak Companysen azken argazkia atera eta Biarritzen erositako postal bat eman zion, Carme Ballesterri idazteko. Abuztuak 29 eta urriak 3 artean, Madrilgo Dirección General de Seguridad-en kalabozoetan egon zen Lluís Companys, eraikin azpiko banakako ziega batean. Urriaren 3an, Montjuic-era lekualdatu zuten eta Gerra Kontseiluan heriotza zigorra ezarri zioten. Urriaren 15eko goizaldean fusilatu zuten.

Historian zehar Mata Hari edo Luis Mariano bezalako pertsonai garrantzitsuek gurutzatu dute Etorbidearen zubia. Zubiaren aro berri honetan mugaren bi aldeetan bizi diren biztanleek egunero zubia oinez zein bizikletaz gurutzatu eta espazio historiko honen edertasunaz gozatzeko aukera izango dute berriro.

Argazkiak:

G38358: Etorbidearen zubirako sarbidean Irundik 1920. hamarkadan zehar, argazkian Aduana eta kontrol polizialerako eraikina ageri direlarik.

G56687: Polizia eta Aduanaren eremuan Etorbidearen zubia 1960. hamarkadaren amaieran edo 1970. hamarkadaren hasieran.

G57405: Karabineroak eta Guardia Zibilak Etorbidearen zubiko muga kontrolatzen 1910. hamarkadaren amaieran.

G57359: Etorbidearen zubitik 1936. urtean ihes egin zuten emakume, haur eta adineko pertsonak.

G30097: Hiritarrak, milizianoak eta soldaduak Etorbidearen zubia gurutzatzeko zain 1936. urtean.

G53105: Militar naziak Etorbidearen Zubiaren Hendaiako aldean Hirugarren Reichak 1940ko ekainaren 29an Frantziako muga ofizialki okupatu aurretik.

G55577: Etorbidearen zubiaren eraikuntza lanak.

G11297: Frantziako Tourra Etorbidearen zubitik igarotzen 1949. urtean.

Hiria bultzatzeko hiritarren ekimenetik sortutako proiektua

Garai konplexu hauetan Irungo merkataritza eta, orokorrean, hiriko bizitza bultzatzen duten ekimen guztiak ongietorriak dira. Horrela, hiriko zenbait merkatari eta ostalari elkartu dira sare sozialen bitartez haien negozioak ezagutzera eman eta, aldi berean, disfrutatzeko asmoarekin. Ekimena Marrubi goxoki-dendak antolatutako zozketa baten ondorioz abiatu zen ustekabean eta, denbora gutxian, sari berriak banatu eta Irungo saltoki eta enpresari ezberdinak inplikatu dituen erronkak antolatzen hasi dira.

Lehenengo 10 litxarkeria kiloko saria zuen zozketa antolatu zuen Marrubi dendaren Instagram kontuaren bitartez. Lehen zozketa horrek izandako arrakasta ikusita, bigarren zozketa bat antolatzea erabaki zuen, baina, kasu honetan hiriko merkataritza laguntzeko helburuarekin. Bigarren lehiaketa horrek 5 irabazle izango zituen eta lehiaketan parte hartzeko baldintza argazkiaren iruzkinetan 2 enpresa irundar aipatzea zen. Honela, irabazleez gainera, iruzkin irabazleetan aipatuak izan ziren saltokiei piruleta poltsa bat oparitu zizkien Mikel Castrok.

Saritutako enpresek piruletak poltsak jasotzeko ordua iritsi zenean, ordea, sariaren bilketa ikusgarri eta originalena nork antolatuko zuen ikusteko lagunarteko lehia hasi zen. Triziklo itxurako bizikletak, txaranga, Aurreratu elkarteko kideen kolaborazioa edo dantzariak ez ziren falta sari bilketa horietan minutu batzuetan Luis Mariano inguruko giroa alaitzeko. Mikel Castrok azaldu duenez, "ekintza hauek orain arte ezagutzen ez genituen Irungo beste merkatari zein ostalariengana hurbiltzeko aukera eman digute".

Helburu bikoitza duen ekimena dela esan daiteke. Batetik, irungo saltzaile txikien edo ekintzaileen sare sozialak ezagutarazi eta bertan partekatutako edukiak gehiago zabaltzea ahalbidetzen dute horrelako ekimenek. Hortaz gain, Irungo negozioetako jabe zein lankideek asko disfrutatzen dute ekintza berriak antolatzen edo antolatutako jardueretan parte hartuz. Irungo merkataritza eta ostalaritzak garai konplikatuak bizitzen ari den arren, horrelako ekimenek hiria sustatu eta aurrera jarraitzeko bultzada ematen diote. "Gure ohiko jardueraren bitartez ingurukoak lagundu eta Irun indarberritzeko modua izan daitekeela ikusi dugu", azaldu du 22 Academyko Josunek.

Erronkaren bigarren zatia

Josune Gurruchaga 22 Academyko dantza irakasleak azaldu duenez, "Ekialde tabernakoek beraiekin batera dantzan piruletak jasotzera gonbidatu gintuztelako batu ginen taldera". Marrubitik igaro eta litxarreria poltsa bat jasotzea sinpleegia zenez, 22 Academy dantza-eskolak bigarren erronka bat proposatu zien parte hartzeko adorea zuten Irungo merkatari zein ostalariei. "Erronka mozorrotuak egitea azken momentuan bururatu zitzaigun eta datozen erronketan mantenduko dugun baldintza bat izango dela uste dugu".

Erronka honetan, 22 Academy dantza-eskolaz gainera, Paperino izozki-denda, Ekialde taberna, El Chico de los Cartuchos eta De Perita fruta-dendako ordezkariek parte hartu zuten. Sektore desberdinetan lan egiten duten enpresak, baina, helburu bakar batekin: hiria suspertzea. "Gure negozioa ezagutzera eman eta egunero egiten duguna erakusteko modua da", azaldu du 22 Academyko Josune Gurruchagak. Horrelako erronka eta sare sozialetan partekatzen dituzten eduki guztien bitartez jendea 22 Academyn eskaintzen dituzten dantza mota ezberdinak probatzera gonbidatu nahi dute. Josune Gurruchagaren hitzetan, "etxetik gauzak era desberdinean ikusten dira, beraz, zuzenean probatzea garrantzitsua iruditzen zaigu".

"Gauzak antolatzeko prestutasuna duen jendea behar dugu"
Mikel Castro, Marrubi goxoki-dendako dendaria

"Hiriko beste negozioetako jabeen ideia eta proposamenak entzuteko prest gaude"
Josune Gurruchaga, 22 Academyko dantza irakaslea

Ekimen irekia

Gutxi batzuen ekimena izan arren, denboraren poderioz hiriko merkatari eta ostalari gehiago batu dira ekimenera. "Batez ere, sare sozialetan presentzia handia izan nahi duen jendea elkartzen ari zaigu". Horrela, gauzak antolatu eta prestatzen diren ekintzetan era aktiboan parte hartzeko gogoak izatea dira taldera batzeko baldintza bakarrak. "Gehienak mutilak gara, beraz, neskak ekimenera batzera animatu nahiko genituzke" azaldu du Mikel Castrok. Marrubiko dendariak azpimarratu duenez, "gauzak antolatzeko prestutasuna duen jendea behar dugu". Josune Gurruchagak gaineratu duenez, "hiriko beste negozioetako jabeen ideia eta proposamenak entzuteko prest gaude".

Etorkizunera begiratzen duen ideia

Partaideek deskribatu dutenez, "kasualitatez" sortutako zerbait izan da, merkatarien ekimenaren bitartez martxan jarri dena. Horrela, antolatzaileak ekimenak biltzen ari duen arrakastarekin txundituta daude. Josune Gurruchaga dantza irakasleak adierazi duenez, "ekintzak sareetan partekatu bezain laster argitalpen bakoitzak jasotako erreakzio eta iruzkin kopuruarekin harrituta gaude". Jende pilaketak saihestera behartzen dituen egoera honen aurrean, jarraitzaileek sare sozialen bitartez horrelako gauzak antolatzea asko eskertzen dute.

Mikel eta Josunek adierazi dutenez haien bezero zein ikasleak erronka eta zozketa berriak eskatzen hasi dira. "Jendea zer antolatzen ari garen edo hurrengo erronka noiz egingo dugun galdezka dabil", azaldu du Marrubiko dendariak. Hurrengo ekintzen inguruan galdetuz gero, Mikel Castrok adierazi du, "ezin dugu hurrengo ekimenen inguruko informaziorik aurreratu, soilik gauza berriak antolatzen hasi garela".

Irungo Errepublikarrak elkarteak altxamendu militarra eta frankismoarekin lotutako gertakariak mapa baten bildu ditu

Irungo Elkarte Errepublikarrak altxamendu militarrean eta diktadura frankistan zehar Irunen gertatutakoa ezagutzeko azterketa lan nagusia burutu du. Gertakari historikoei zabalpena emateko helburuarekin Nicolás Guerendain elkarteak informazioa eta gertakarien kokalekua biltzen dituen mapa argitaratu berri du. Aiala Oronoz arduratu da ikerketa lana burutzeaz eta Marijo Noguésekin batera lanaren emaitzak eta helburuak azaldu ditu.

Zergatik ikusten zenuten elkartean horrelako eduki bat sortzeko beharra?
Aiala: Altxamendua eta Frankismoaren inguruko materialik ez dagoela ikusten dugulako. Dokumentu eta material gutxi dago, beraz, garrantzitsua iruditzen zitzaigun ere euskarazko materiala sortzea. Batez ere, egindako lana zabaltzeko asmoarekin sortu den zerbait da.

Marijo: Elkartea memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin sortu zen. Gure azken lanen artean aurkeztu berri dugun mapa hau aurkitzen da. Alde batetik gertaerak ezagutzea oso interesgarria da, orain arte ezezagunak ziren gauza berri asko ikas daitezkeelako.

Ikerketa lan sakona ezkutatzen da lan honen atzean?
Aiala: Azken urteetan zehar artxibo ezberdinetan gai honen inguruan eta Irunen gertatutakoaz topatu genezakeen informazioa bilatzen ibili gara. Bertan topatutako informazio gehiena mapa honetan bildu dugu ikuspegi orokorra eskaintzeko, beste zenbait gauza gure

> **“Ezagutzen dugun hiria beste perspektiba batetik begiratzeko aukera eskaintzen digu”**
> Aiala Oronoz, Irungo Errepublikar elkarteko kidea

webgunera gehitu ditugun bitartean.

Nola erreakzionatzen du jendeak Irunen gertatutako guztia ezagutzean?
Marijo: Lehenengo erreakzioa sorpresa dela esango nuke. Orduan, gaiarekiko interesa pizten da eta jendeak hirian gertatutako guztia ezagutu nahi du. Gertatutakoaz kontziente izatea eta egia ezagutzea oso garrantzitsua da.

Non eskuratu daiteke mapa berezi hau?
Aiala: Interesdunek Irungo Turismo Bulegoan, Palmera Montero Gunean, Irungo kioskoetan eta bestelako leku publikoetan topatuko dute. Hortaz gain, elkartearen webgunean mapa birtual bat sortu dugu edonon paperezko mapako informazio guztia kontsultatzeko.

Gertakariek Irunen iragana beste modu batetik begiratzeko aukera eskaintzen digute?
Aiala: Hori zen gure ideia. Ezagutzen dugun hiria beste perspektiba batetik begiratzeko aukera eskaintzen digu, egunerokotasunean ikusten ditugun espazioak beste ikuspuntu batetik begiratzeko.

Zein eragin izan du historian zehar hirian Irun Frantziako mugatik gertu kokatuta egoteak?
Aiala: Zentzu askotan baldintzatu zuen, frenteen sorreratik hasita hiriaren okupazioa iritsi arte. Gainera, jende askok Frantziara ihes egin zuen eta estatura itzultzerako orduan, Irun pasabide garrantzitsua izan zen. Mugaren beste aldetik nazioarteko kazetari askok frontearekin lotuta berriak zabaldu zituzten, beraz, muga izaera oso esanguratsua izan zen garai horretan.

Urte horietan zehar mota askotako errepresioak jasan zituzten irundarrek?
Aiala: Bi motako errepresioak bereizi daitezke, orokorra eta pertsonala. Udaleko zein trenbideetako langile askok depurazio laborala jasan zuten, erbestea errepresio orokorra izan zen eta euskararekiko jazarpena oso gogorra izan zen.

Adibidez, Stadium Galen inguruan sailkapen esparru bat egon zela aipatzen duzue mapan?
Aiala: Bai, Frantziatik estatura sartu nahi zuen jendeak autoritateen filtroa igaro behar zuen, beraz, egun batzuk ematen zituzten bertan, ondoren, kontzentrazio esparruetan, langile batailoietan edo haien herrietara itzuli aurretik.

Orain dela gutxira arte Irungo kaleen izendegian Frankismoaren arrastoak ageri ziren?
Aiala: Guk mapan kale izendegia hiriko historiarekin batera izandako bilakaera bildu nahi izan dugu, hau da, Errepublika garaitik 2004. urtean egindako azken izen-aldaketa biltzeko.

> **“Bertako historiaren ulermenerako ingurua ezagutzea eta gertakariek utzitako arrastoak ikustea lagungarria da”**
> Marijo Nogués, Irungo Elkarte Errepublikarreko kidea

Hiriko ikastetxeetan Irungo historiaren inguruan behar bezain beste sakontzen da?
Marijo: Ni neu historia irakaslea naiz Irungo institutu batean. Euskal Herriko historia lantzeko atal berezi bat dugu, baina, Irungo historia ikasleei azaltzeari garrantzi berezia eman behar zaiola uste dut, bertan, gauza bereziak gertatu baitziren. Dena den, historiaren ikuspegi orokor bat izatea ere beharrezkoa da. Bertako historiaren ulermenerako ingurua ezagutzea eta gertakariek utzitako arrastoak ikustea lagungarria da.

Historia orainaldiko kontuak azaltzeko baliagarria izan daiteke. Adibidez, irundarrek Frantziara egindako ihesaldiarekin noizbait irundarrak ere errefuxiatu izan zirenez, egungo errefuxiatu krisiaren arrazoiak ulertzeko lagungarria izan daiteke?
Marijo: Oraindik ez dugu fenomeno hori nolakoa izan zen guztiz ezagutzen eta berriro errepikatzen ari da. Aberria atzean utzi eta beste leku ezezagun batera joateak zer suposatu dezakeen azaldu dezake. Horrelako pasarteen ezagutza egungo gertakarien ulermena eta orain gatazkaren beste aldean aurkitzen direnekiko enpatia lagunduk dezakeela uste dut.

Santiagotarrak kirol elkarteko kideak denboraldia aurrera ateratzeko prestatzen ari dira

Osasun krisialdiak hankaz gora jarri du Santiagotarrak kirol elkartean biltzen diren sekzio desberdinetako kirolarien egutegia. Denboraldiko egutegia airean dago, txapelketak noiz eta zein baldintzetan egin ahalko diren argitzeko esperoan. Antxon Arellano kirol elkarteko presidenteak eta Jone Araño klubeko ordezkari gisa klubaren antolamendu berriaren inguruko xehetasunak azaldu dituzte.

Konfinamenduarekin klubaren jarduera bertan behera gelditu zen?
Antxon: Hori da. Kluba itxi arren, etxetik entrenamenduak mantentzeko apustua egin genuen. Horretarako, klubeko kirolarien artean klubeko gimnasioko materiala banatu genuen etxera eraman zezaten. Infantil eta eskolarrentzat oso garrantzitsua izan da entrenatzaileekin harremanetan jarraitzea "Zoom" aplikazioaren bitartez egin diren jarduerekin.

Klubaren jarduera guztiz berreskuratu duzue?
Antxon: Lehenik eta behin uretako material guztia biltzen duten pabilioiak ireki genituen, gimnasioa eta aldagelak itxita jarraitu zuten bitartean. Segurtasun neurriak errespetatzeaz gainera, talde murriztuak antolatu ziren. Pixkanaka instalakuntza gehiago zabaltzen joan gara, beti ere, aretoen edukiera eta segurtasun distantziak errespetatuz.

Denboraldi ezohiko baten aurrean zaudete?
Jone: Bai, momentuz gauza batzuk programatuta dauzkagu, baina, egoera ikusita gauzak momentu batetik bestera aldatu daitezke. Entrenatzen jarraitzeko asmoa dugu eta txapelketak antolatzen direnean, haietan parte hartzeko eta lehenengo postuen artean egoteko prest egongo gara.

Udako etenaldiaren ostean, klubaren arraun sekzioak lehen txapelketetan parte hartu du?
Jone: Bai, arrauna da txapelketetan dabilen talde bakarra. Momentuz bizpahiru txapelketetan parte hartu dute. Iraila amaieran Legutianon Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan parte hartuko dutela aurreikusita dago. Era berean, urriaren amaieran toki berean Espainiako txapelketa antolatzeko asmoa dagoela dirudi.

Beste sekzioetan, ur-lasai eta ur-lasterretan, txapelketa asko daude egutegian?
Jone: Ur-lasaietan munduko kopa bat programatuta dago eta selekzio frogekin bueltaka dabiltza, beraz, gauzak nahiko airean daude oraindik. Ur-bizietan entrenamenduekin jarraitzen dute. Klara Olazabal, Ander Elosegui eta Joan Crespo Pragan egon berri dira eta Europako Txapelketa irailaren 18 eta 20aren artean izango da.

Txapelketen egutegia guztiz itxita egon ez arren, entrenatzen jarraitzeko asmoa duzue?
Jone: Bai, datorren asteburuan Aitzpea Gonzalezek Europako txapelketa dauka. Espainiako Selekzioarekin kontzentraturik dauden kirolariek ez dute etenaldirik egin, maila oso altuetan dabiltza eta txapelketak antolatzen direnerako prest egon behar dira. Klubean ere berdin gabiltza, ahal denean entrenatzen eta pilak guztiz kargaturik dauzkagu.

Antxon: Asmoa entrenatzen jarraitzea da, baina, zaila da denboraldiko egutegia antolatzea txapelketa daten aurreikuspenik gabe. Arrauneko sekzioak ekainean etenaldi txiki bat egin zuen, uztailean berriro lanean asteko. Aurreko denboraldiari dagokion Espainiako Txapelketa egingo ote den esperoan gaude, baina, bestela datorren denboraldirako prestatzen hasi garela esan daiteke. Pistan eta beste sekzioetan ere etenaldiak egin dira, helbururik gabe egunero entrenatzea zentzugabea delako.

Klubeko entrenamenduetan zein txapelketetan segurtasun protokolo bereziak dituzue?
Jone: Bai, protokoloak errespetatzeari garrantzi handia ematen diogu, bestela, klubaren jarduera eten beharko genukeelako.

Udazken-neguko entrenamenduak antolatzen hasi zarete?
Antxon: Udako eguraldi ona amaitzen denean, barneko instalakuntzetan entrenatzeko modua topatu beharko dugu. Kanpoko pabilioian gauzak mugitu eta kirol makinak bertara mugitu beharko ditugu ziurrenik, talde guztiek entrenatzeko aukera izan dezaten.

Udako ikastaroak eskaintzeko aukerarik izan duzue?
Jone: Bai, aurten, gainera, udako ikastaroen eskaera handia jaso dugu. Dena dela, talde txikiagoak antolatu ditugu eta begirale gehiago jarri ditugu. Lan-taldearen koordinazio egokiari esker gauzak oso ondo atera dira eta hurrengo udako ikastaroetarako gauza asko ikasi ditugu.

Klubetik Bidasoa ibaian piragua irteerak egiteko aukera eskaintzen duzue?
Jone: Bai, berrogeialdiaren ostean piraguak alokatzeko jende gutxiago animatuko zela uste genuen, baina, kontrakoa gertatu da eta lan asko izan dugu zentzu horretan. Gurea orokorrean bakarkako kirola denez, bizi dugun garairako oso aproposa da eta ohore handiz eskaini diogu jendeari gure kirola praktikatzeko aukera.

Beste udekin alderatuta, eskualdeko biztanle gehiago hurbildu dira piraguak alokatzera?
Jone: Bai, gure bezero gehienak ingurukoak dira, beraz, aurten jendea etxean gelditu denez, gehiago animatu dira.

FOTOGRAFIA ESTUDIO
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Julen Aginagalde, eskubaloi jokalaria:

“Bidasoan hasi eta bertan bukatzeko ilusioa neukan”

Julen Aginagaldek Bidasoan hasi zuen bere ibilbidea eskubaloi profesionalaren munduan 1999. urtean. 20 urte hauetan zehar Espainiako zein Europako eskubaloi talde ezagunetan ibili ostean, jokalari irundarra etxera itzuli da 2020/2021 denboraldia Bidasoako lehen taldearekin batera jokatzeko.

Nola sentitzen zara berriro etxean, Artalekun, jokalari gisa?
Ilusio handiarekin nator egia esan. Urteak eman ditut etxera itzultzeko gogoekin eta, azkenean, gauzak horrela suertatu dira. Taldekideekin primeran moldatzen naiz, talde oso polita dugu eta giroa oso ona da. Jokatzeko forma ere oso asimilatua daukat eta taldea batzeko ahalik eta gehien egiten saiatzen ari naiz.

Zerk bultzatu zintuen etxera itzultzeko erabakia hartzera?
Gauza asko, familia batez ere, baina baita ilusioa ere. Bidasoan hasi eta bertan bukatzeko ilusioa neukan, beraz, ikusiko dugu, baina, momentuz oso pozik nago.

Hogei urte hauetan eskubaloi jokalari profesional gisa asko aldatu zara?
Bai, segur aski bai. Jokatzen hasi nintzenetik urte asko pasatu dira eta, oraindik posizio berean jokatu arren, asko aldatu naizela uste dut. Bertan jokatzeko forman aldaketak egon dira ere, bai kirolari bezala zein pertsona bezala. Orain jokalari ezberdina izan arren, taldeari ahal dudan gehiena ematen ahaleginduko naiz.

Munduko zelai ezberdinetan ikusi zaitugu, baina, beti Irungo bandera gertu zenuela?
Bai, irudi berezia da, baina, esan beharra daukat beti beste norbaitek eramana izan dela, hau da, ez nuen nik neuk eramaten. Zortea izan dut eta horrelako momentu berezietan hurbileko jendearen babesa izan dut banderaren bitartez. Polita izan da beti Irun alboan edukitzea.

Aurreko denboraldia ezohikoa izan zen. Nola bizi izan zenuen zuk txapelketaren amaiera?
Bagenekien liga bukatuko ez zela eta Championsarekin gauza bera gertatuko zela uste nuen, nahiz eta erabakia gehiago luzatu. Irunera bueltatzen nintzela jakinda, txipa aldatzea tokatu zitzaidan. Ahal zen moduan nire kontu lanean hasi nintzen forma onean mantentzeko eta, Polonian jada bukatu nuela jakinda, Bidasoan pentsatzen hasi nintzen.

“Gure esku dagoen gauza bakarra, egoera normala izango balitz bezala, dena topera prestatzea da”

Asko nabaritu duzu jokatzeko moduaren aldaketa klub batetik bestera?
Bai, joko-mota guztiz desberdina da, baina, partidu asko ikusiak neuzkanez, lan hori aurreratua neukan. Gainera, kide jokalariek gauzak argiago dituztenez, haiek ikusita errazagoa egiten zait, beraz, ahal dudan guztia egiten ari naiz lehenbailehen egokitzeko.

Behin aurre-denboraldia hasita, nola ikusten duzu taldea denboraldi berrirako?
Aurre-denboraldiko azken partiduarekin abuztuko lana ondo borobildu dugula uste dut, hortaz, prest gaude. Badakigu norgehiagoka guztiz ezberdina dela, aurre-denboraldia eta denboraldia guztiz ezberdinak izan daitezkeelako. Jokalariak baloia martxan jartzeko irrikatzen gaude .

Denboraldi arraro bezain ezohikoa duzu aurretik, ezta?
Bai, ikusiko dugu, hasi aurretik arazoak sortzen ari direla ikusi baitugu. Oraindik ez dakigu ziur hurrengo partiduak jokatzeko aukerarik izango ote dugun gauzak airean daudelako. Gure esku dagoen gauza bakarra, egoera normala izango balitz bezala, dena topera prestatzea da.

Aldi berean Liga eta Europako konpromisoei aurre egin ahal izateko talde indartsua behar da?
Noski. Talde polita dugu eta gazteak lan gogorra egiten ari dira. Orokorrean talde polita dugu eta hori pistan erakutsi ahal izatea espero dut.

“Polonian jada bukatu nuela jakinda, Bidasoan pentsatzen hasi nintzen”

Noraino nabaritzen duzue jokalariek jarraitzaileak harmailetan izatea edo ez?
Batez ere Artalekun jokatzen dugunean nabaritzen dugu jarraitzaileen babesa, kanpoko zelaietan zailagoa baita indar hori antzematea. Hala ere, badakigu gure indar handienetako bat Artalekuko jarraitzaileak direla. Nahiz eta batzuetan urrun egon, gertu sentitzen ditugu eta beraiengatik gure alde onena ematen ahaleginduko gara.

Nola laburbilduko zenituzke taldeak denboraldi honetarako markatu dituen helburuak?
Oraintxe buruan dugun helburu nagusi denboraldiko lehen partiduetara indarrez beteta iristea da. Pistara ateratzen garen bakoitzean gure helburua edonor irabaztea izan behar da. Talde irabazlea dugula uste dut eta gauzak nola aterako diren ikusteko dago.

Urte luzez ikusiko dute zaletuek Julen Aginagalde Bidasoa klubeko jokalarien artean?
Ikusiko dugu, izan ere, oraindik ez dakigula denboraldi hau nolakoa izango ote den. Momentuz asko disfrutatzen ari naiz, egokitzapena erraza izaten ari da Bidasoan, Irunen zein lan-taldean gustura aurkitzen naizelako. Hortaz, pausuz pausu joan beharko gara, amaiera aurreikuspenik egin gabe.

Zabalik dago Irungo Haurtxokoetan 2020/2021 ikasturterako izena emateko epea

Zabalik dago Irungo Haurtxokoetan 2020/2021 ikasturterako izena-ematea egiteko epea. Izen-ematea irailaren 1etik 7ra egin beharko da udalaren egoitza elektronikoan, telefonoz deituz edo HAZ autozerbitzu terminaletan. Haurtxokoek urrian martxan hasi eta datorren urteko ekainean ikasturtea amaitzea aurreikusita dute.

Aurten ere hiru izango dira datorren ikasturtean zehar hirian martxan egongo diren Haurtxokoak: Kateakoa (Araba kalea, 46), Lapitzekoa (Deskarga, 17) eta Palmera Monteroko Txikilab(J.A. Loidi Bizkarrondo, 12). Katea auzoko haurtxokoa astelehenetik ostiralera irekiko da arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara. Lapitze eta Palmenta Montero auzoetako haurtxokoak, berriz, astelehenetik ostiralera irekiko dira, 17:00etatik 19:00etara.

Haurtxokoetan 2009. eta 2016. urteen artean jaiotako umeek parte hartu ahalko dute, hau da, 4 eta 11 urte bitarteko haurrak. Hortaz gain, haurrak Irunen erroldatuta egon beharko dira. Datua Udal Erroldan egiaztatuko da eta erroldan 2020ko abuztuaren 1a baino lehen izan beharko du alta emanda. Haurrak bi taldetan bereiziko dira haurren adinaren arabera. Batetik, 4 eta 8 urte bitarteko haurrak eta, bestetik, 9 eta 11 urte artekoak.

Hiru txanda izango dira haurtxoko bakoitzean. Astelehen eta asteazkenetan 4 eta 8 urte arteko haurren lehen txanda izango da eta astearte eta ostegunetan, berriz, adin bereko haurren bigarren txanda. Ostiralak, berriz, 9 eta 11 urte arteko haurrentzako erreserbatuta egongo dira. Txanda bakoitzean 20 umeentzako tokia izango da eta, era berea, haurrak 10 kideko taldeetan bereiziko dira. Zozketa bidez erabakiko da haurrek zein txandetan parte hartuko duten. Zozketa aukeratutakoen datuak egiaztatu, zerrendak argitaratu eta gora jotze epea bete ondoren onartu diren artean egingo da.

Izen-emateak

Haurtxokoetan parte hartzeko aurre izen-ematea irailaren 1etik 7ra, biak barne, egin behar dute interesdunek. Aurre-inskripzioa bide hauek erabiliz egingo da: www.irun.org web orrian sinadura elektronikoaren bitartez, HAZeko autozerbitzu terminaletan egunero goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara, Anaka eta Landetxa Kutxabankeko terminaletan, edo 010 / 943 505152 telefono zenbakietara deituta astelehenetik ostiralera 8:00etatik 19:00etara eta larunbatean 8:30etatik 13:30etara.

Zozketa eta behin-behineko zerrenda

Zozketarako onartutako eta ez onartutako eskarien behin-behineko zerrendak jendaurrean jarriko dira erakusgai www.irun.org udaleko web orrian irailaren 10 eta 11ean. Gainera,010/943 505 152 telefono zenbakietara deituz, HAZeko autozerbitzu terminaletan, Anaka eta Landetxa Kutxabankeko terminaletan, eta IGazten zerrendak kontsultatu ahal izango dira. Epe horretan, nahi izanez gero, gora jotzeak egiteko aukera izango dute interesatuek HAZeko bulegoan irailaren edota www.irun.org bidez Irun Txartelaren bitartez. Behin epea bukatuta, gora jotzerik ez balego, behin-behineko zerrendak behin betikotzat hartuko dira. Gora jotzerik balego, irailaren 15ean konponduko da.

Zozketa publikoa

Zozketa publikoa izango da eta irailaren 16an egingo da goizeko 10:00etan Urdanibia plazaren 6. zenbakian kokatutako Ospitale Zaharreko Hitzaldi Aretoan. Emaitzak jendaurrean ikusgai jarriko dira eta www.irun.org udaleko web orrian irailaren 21ean. Gainera, zozketaren emaitzak kontsultatu ahal izango dira 010/943 505 152 telefonora deituz HAZeko autozerbitzu terminaletan, Anaka eta Landetxa Kutxabankeko terminaletan eta IGazten.

Behin-betiko izen-emateak

Ordainketa eta behin betiko izen-ematea Internetez egingo dira SAC24h zerbitzuaren bitartez (www.irun.org/sac) eta terminaletan, irailaren 22tik 26ra bitarte. Behin zozketa eginda, Irungo udalak plaza eskuratu dutenei posta elektroniko bat bidaliko die behin betiko izen-ematea egiteko beharko duten inskripzio-kodearekin eta erabili beharko duten loturarekin. Lotura horretan sartzeko IRUN TXARTELA edo beste ziurtagiri digital bat erabili beharko da. Behin betiko izen-ematea aipatutako epean egiten ez bada, plazari uko egiten zaiola ulertuko da.

Jardueraren prezio orokorra 40,60 eurokoa izango da, baina, Bizikidetza Unitate bereko anai-arreben kasuan, bigarren kidetik aurrera bakoitzaren kuota 22,35 eurokoa izango da. Hortaz gain, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten bizikidetza unitateek edo Gizarte Ongizatearen txosten baten bidez antzeko egoeran daudela justifikatzen dutenek % 90eko hobaria izango dute.

Lekaenea HH

Denbora-pasak

Euskal Herriko 7 mendi

W	M	I	D	T	I	F	B	I	T	I	G	S	X
P	O	L	J	A	I	Z	K	I	B	E	L	H	B
A	S	A	I	A	K	O	H	A	R	R	I	A	K
E	A	J	A	S	B	I	V	K	I	O	R	I	V
H	O	D	V	Y	H	I	F	H	M	U	C	J	R
K	V	H	U	F	T	D	C	S	J	T	Y	T	F
H	E	I	L	A	R	H	U	N	E	J	X	Y	F
J	Z	W	A	I	T	Z	G	O	R	R	I	N	J
V	T	X	I	N	D	O	K	I	Q	T	R	X	Y
H	O	R	G	M	L	Y	P	T	F	A	Y	Y	E
X	S	A	X	V	Q	P	S	A	O	X	I	X	J
O	T	O	U	P	I	Y	V	Q	Q	S	W	W	Y
A	Y	Q	A	R	A	T	Z	J	S	P	Z	L	T
X	O	W	L	E	S	E	D	L	O	R	P	I	O

AiakoHarriak, Ori, Aitzgorri, Larhune, Txindoki, Aratz, Jaizkibel

			6				4	
8			5				2	
6	5			1	2	8		
	9	7	8		3		1	
		3	1	4	9			
					7			3
	3						9	5
			7				8	2
	2			8				4

Euskaraz, Irunen barrena

Ai ai ai mutilla

Ai ai ai mutilla,
txapela gorria.
Oraingo mutil txarrak
eztute bertzerik merezi
urian beratu ta
lixiban egosi

Oronoz-Mugaireko M.G.I.ri jasoa (1960-III27). Gurasoei ikasi zien. (El Bidasoa, 1960-IV23)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Eguzkitza 6. maila

EGUZKITZA ESKOLAKO LEHEN HEZKUNTZA 6. MAILAKO IKASLEEK EGINDAKO BERTSOAK.

HAIN DIBERTIGARRIA
TA PERTSONA ONA
JATORRA ERE BAZARA
TA OSO SAKONA

ZE LOTSATIA ZAREN
ETORRI ZAITEZ HONA
TA GOAZEN EGITERA
GU NORBAITI BROMA

EGILEA: UXUE RODRIGUEZ 6.B

OSO AZKARRA ZARA
BETI ZAUDE ALAI
KIROLARI BIKAINA
LAGUN ONA ERE BAI

MATEMATIKA EGITEN
DIRUDIZU LASAI
BETI ZAUDE ZU LANA
NOIZ IRITSIKO ZAI.

EGILEA: AITANA MESTRE 6.B

OSO POLITA ZARA
ALAI ETA ONA
ETA MARGOLARIA
ZARA HOBERENA

OSO TREBEA ZARA
TA INDARTSUENA
TA BETI BADAKIZU
ZEIN DEN ERANTZUNA.

EGILEA: OIER URTIZBEREA 6.B

ESKOLARA ETORTZEAN
SORTU ZAIT IRRIA
IKUSTEAN HAIN LAGUN
ON, MAITAGARRIA

TONTAKERIAK SORTZEN
DIBEERTIGARRIA
ASKO MAITE ZAITUT TA
JARTZEN NAIZ GORRIA

EGILEA: IRATI GUERRA 6.B

Irundarrak eskolako itzulera ezohikoa prestatzen hasi dira



Eskolako itzulera nola eta zein baldintzetan egingo den guztiz argi egon ez arren, iraileko hilabetearen hasieran ohikoa denez, eskolako itzulera prestatzen hasi dira hiriko familia askok. Luis Marianon kokatutako Folder dendako Rakel Lamasek eskolako itzulera prestatzeko erosketak nolakoa izaten ari diren azaldu du.

Eskolako itzulera ezohikoa da aurtengo, ezta?
Bai, haurrak ikastetxeetara itzuli behar direla suposatzen da. Dena den, badira erosketak azken momenturako uztea erabaki duten gurasoak, azkenean erabakia ezagutu arte.

Asko dira haien erosketak atzeratzeko erabakia hartu duten gurasoak?
Ez gehiegi. Izan ere, kurtsoaren hasiera ohiko datetan egingo dela suposatzen da, hau da, iraileko hilebetearen bigarren astean, beraz, egun gutxi batzuk falta dira data iristeko.

Noiz hasi ohi da jendea eskolako materialarekin lotutako erosketak egiten?
Abuztuan nabaritu ohi ditugu guk eskolako materialaren erosketarekin lotutako lehen mugimenduak. Gainera, hainbat eskaintza berezi izan ohi ditugunez iraila inguruan jende asko hurbiltzen zaigu ere, nahiz eta beste batzuek erosketak aurretik egitea nahiago duten.

“Hainbat eskaintza berezi izan ohi ditugunez iraila inguruan jende asko hurbiltzen zaigu ere”

Eskolak etxetik edo ikastetxeetatik ematea materialaren erosketa eragina izango du?
Bai, zerbaitetan nabarituko da. Adibidez, normala da joan den urtean erdizka utzi zituzten koadernoak aprobetxatu nahi izatea. Eskolak etxetik eman arren, haurrek material berdina beharko dute.

Aurten ohiko erosketetara musukoak eta gel hidroalkoholikoa batu behar dira?
Bai, gainera, horrelakoak gure dendan salgai dauzkagu. Esan beharra dugu, aurreko urteetan ikastetxeek bidaltzen zituzten material zerrenda berdinak ikusten ari garela aurten.

Zer da garai honetan jendeak gehien erosten duena?
Batez ere, koadernoak, motxilak, margoak, boligrafoak, arkatzak eta estutxeak, azken finean, edozein umek eskolara joateko behar dituen oinarrizko gauzak. Zentzu horretan, aurten ez dugu beste urteko joerarekiko aldaketarik nabaritu.

Azken urteetan zehar udalak martxan jarritako “Erosi eta ikasi Irunen” diru-laguntzen eragina nabaritu duzue?
Bai, asko gainera. Izan ere, diru-laguntzak saltoki txikietan egindako erosketak bultzatzen dituelako soilik, beraz, azken urteetan asko nabaritu dugu. Jendeak erosketen tiketak eskatzen dizkigu eskaera egiterakoan aurkeztu ahal izateko.

Urte batetik bestera jendea aurreko urteko materiala berrerabiltzen saiatzen da?
Bai, joera hori ere dendan nabaritzen dugu eta ulertzeko da. Material merkeagoa eskaini arren, jendeak askotan kalitatezko materiala bilatzen du, adibidez, koadernoetan batez ere.

Data hauetan deskontu bereziak izan ohi dituzue?
Bai. Deskontuak dendaren sarreran izan ohi dugun katalogoan, Irungo postontzietan banatu den katalogoetan edo dendaren webgunean kontsultatu daitezke eskaintza bereziekin batera.

Dendan jende pilaketak saihesteko segurtasun neurri berriak hartzen ari zarete?
Bai, osasun krisialdia hasi zenetik dendara sartu daitekeen jende kopurua murriztu dugu eta sarreran dugun gel hidroalkoholikoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Kutsatzeak saihesteko neurri hauek errespetatzea funtsezkoa iruditzen zaigu.

“Eskolak etxetik eman arren, haurrek material berdina beharko dute”

Joan den ikasturtean eskolak ohi baino lehenago amaitu zirenez, ikasturtearen amaieran erosketak asko murriztu ziren?
Eskolako hainbeste materialik erosi ez arren, jendeak etxean konfinatuta zegoenez eskulanak egiteko material asko erosi zuen, beraz, beste motatako erosketak izan arren, denda zabalik edukitzeko aukera eman zigun.

Aurtengo eskolako itzulera kanpaina irailean eta hurrengo hilabeteetara luzatuko dela uste duzue?
Lehen jendeak erosketak beldurrik gabe egiten zituen, baina, orain batzuk bigarren konfinamendu baten beldur direnez, erosketak ohi baino beranduago egingo dituztela dirudi.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gazteei zuzendutako programa eta jarduerentzako diru-laguntzak 2020

Norentzat: Irunen errotuta egonda deialdi honen arlo zehatzetan jarduerak egiten dituzten eta haurren, nerabeen eta gazteen esparruan lan egiten duten elkarteek eta gazte-elkarteek. Bestetik, Irundik kanpokoak izanda ere lanaren zati handi bat Irunen egiten dutenentzat.

Epea: irailak 15.

Eskakizunak: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean izena eman izana.

Diru-laguntza gehiago: Garapenerako lankidetza proiektuei, sorkuntza ekintzen sustapenerako, urteko edo denboraldiko kirol jardueretarako...

Boluntario izan nahi duzu?

Hasi aurretik informatzea da egokiena, boluntariotzarekin bat egiteko jakin beharreko guztia ezagutzeko. Horregatik boluntariotzara hurbiltzeko saioa antolatu da.

Eguna: Irailak 24.

Ordua: 16:00etan.

Lekua: Gizalde (Autonomia kalea 19, Donostia).

Izena emateko: 943 42 80 13 telefono zenbakira deituz edo gizalde@gizalde.eus helbide elektronikoaren bitartez.

Eusko Jaurlaritzako Bekak 2020-2021 ikasturterako

Unibertsitate mailako eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak. Epea: 2020ko urriaren 26ra arte.

Garrantzitsua: Eskaera erabat elektronikoa da eta, egin ahal izateko, ziurtagiri elektroniko baliagarri bat izan behar da derrigorrean. BakQ ateratzea gomendatzen dizuegu.

Era elektronikoan identifikatzeko metodo berria da, erabiltzeko oso erraza, eta administrazioekin era telematikoan harremanetan jartzeko aukera ematen du.

Maskara beti

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten 60 bat elkarteren topagunea da. Kontseiluak osasun krisialdia dela eta maskararen erabilera, pertsonen arteko segurtasun distantzia errespetatzea eta eskuen higienea zaintzearen garrantziaz ohartarazteko bideoa prestatu du kontseiluaren webgunean zein Youtube kanalean ikusi ahalko dena.

Irungo kiroldegietan ikastaroak: Artaleku eta Azken Portu

Izen-emateak: Bazkideentzat abuztuaren 20tik aurrera eta abuztuaren 21etik aurrera ez abonatuentzako.
Aerobik, Gimnasia, Tonifikazioa, Cycling, Zumba, Pilates ... eta beste hainbat ikastaro aukeran.

Izen-ematea web orriaren bitartez egiteko: www.irun.org/SAC webgunean sartu eta Irun Txartela B@KQ atalean klikatu. NANa, pasahitza eta koordenatuak sartu ostean, Irunkirol Udal kiroldegiak atalean Ikastaroetan izen ematea hautatu eta programaren pausoak jarraitu eskaera sinatu arte. Azken urratsa, ordainketa egitea izango da.

Igeriketa ikastaroetan, ikastaroa hasi baino lehen, bere maila egiaztatzen duen diploma aurkeztu beharko du kiroldegiko harreran.

Haurren igeriketa ikastaroetan, eskaera handia dagoenez, ume bakoitzak ikastaro baten bakarrik eman ahal izango du izena. Lekurik soberan geratzen bada, orduan, bai, beste ikastaro batean ere eman ahal izango du izena, beti ere zerrendak amaitzen direnean.Gainerako ikastaroetan, pertsona bakoitzak ikastaro batean edo gehiagotan eman ahal izango du izena.

Erosi eta ikasi Irunen

Irungo saltokietan eskolako materiala erosteko diru-laguntzak. Hiriko familiei zuzendutako laguntza eta merkataritzari zuzendutako babesa. Eskola materiala 2020ko ekainaren 21etik irailaren 30era bitarte erosteko aukera.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak: Idazteko materiala eta suntsikorrak, suntsikorra ez den materiala, eskolako jarduerako beharrezkoak diren jantziak eta eskulanetarako elementuak. Diru-laguntza eskatu ahal izateko egindako erosketen faktura gordetzea ezinbestekoa izango da.



Irailak

4

Haurrentzakoa zinema

Zer: Asterix. Edabe magikoaren sekretua filmaren emanaldia.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua. 22:00etan.

Sarrera: Doakoa.

Sarrerak: ikuskizuna hasi baino 50 minutu lehenago jaso ahalko dira aretoaren sarreran.

Oharra: Ateak ikuskizuna hasi baino 30 minutu lehenago irekiko dira.

6ra arte

Erakusketa: 18CM

Zer: 18cm lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igandetan eta jaiegunetan 11:30etatik 13.30etara.

Sarrera: Doakoa.

8ra arte

Bederatziurrena

Zer: Junkaleko Ama Birjinari bederatziurrena.

Non: Junkaleko parrokian.

Ordutegia: Lanegunetan eukaristia arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta irailaren 1ean, igandean, 12:30etan.

Oharra: Eukaristia bakoitzean parte hartuko duten parrokia eta abesbatzen izenak udal webgunean kontsultatu daitezke.

13

Orientazio ikastaroa Aiako Harrietan

Zer: Lapurriturriko Informazio Guneak antolatua eta Gipuzkoako Orientazio Taldeak zuzendua.

Non: Lapurriturriko Informazio Gunean hasiko da.

Iraupena: 10:00etatik 12:30etara.

Izen-ematea: Udalaren webgunean edo 010/943 505152 telefonoan, abuztuaren 31tik irailaren 10era bitartean.

Oharra: Koronabirusaren zabalpena ekiditeko neurri guztiak betetzeaz gainera, parte-hartzaileak bederatzina kideko bi taldetan banatuko dira.

19

Dantza: "Erritu" emanaldia

Zer: Kukai dantza taldearen erritu emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: 7,75 euro.

Sarreren salmenta: Amaia Kultur Zentroaren webgunean.

30era arte

Erakusketa: Euskal Kostaldeko Sukaldaritza

Zer: Erromatar garaitik gaur egun arte euskal sukaldaritzak izandako bilakaera laburbiltzen duen erakusketa.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordutegia: asteartetik larunbatera 10:00etatik 20:00etara eta igandetan 10:00etatik 14:00etara.

Sarrera: Doakoa.

Denbora-pasen emaitzak

W	M	I	D	T	I	F	B	I	T	I	G	S	X
P	D	L	J	A	I	Z	K	I	B	E	L	H	B
A	S	A	I	A	K	O	H	A	R	R	I	A	K
E	A	J	A	S	B	I	V	K	I	O	R	I	V
H	O	D	V	Y	H	I	F	H	M	U	C	J	R
K	V	H	U	F	T	D	C	S	J	T	Y	T	F
H	E	I	L	A	R	H	U	N	E	J	X	Y	F
J	Z	W	A	I	T	Z	G	O	R	R	I	N	J
V	T	X	I	N	D	O	K	I	Q	T	R	X	Y
H	O	R	G	M	L	Y	P	T	F	A	Y	Y	E
X	S	A	X	V	Q	P	S	A	O	X	I	X	J
O	T	O	U	P	I	Y	V	Q	Q	S	W	W	Y
A	Y	Q	A	R	A	T	Z	J	S	P	Z	L	T
X	D	W	L	E	S	E	D	L	O	R	P	I	O

7	9	5	3	4	6	2
5	4	9	1	2	8	3
9	7	8	5	3	4	1
6	3	1	4	9	2	7
8	1	2	6	7	9	5
3	8	4	2	6	1	9
4	6	7	9	5	3	8

Matrikula epea irekita!

morrisacademy.com/welcome

- Cambridge azterketen prestakuntza emaitza paregabeekin.
- Metodologia dinamikoa eta eraginkorra.
- Irakasle natiboak.
- Prezio erakargarriak.
- Teknologia berrien erabilera.
- EEBBtan eta Irlandan udako egonaldiak.

WELCOME School of English

Morris Academy

943 61 30 61

Gipuzkoa hiribidea, 2. zbk -1 eskubi. IRUN

welcome@welcomeshool.es